

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoak ditugun aliantza nagusiak ondokoak dira:

1. Supermerkatuak: haiei iraungitzear dauden produktuak erosiko ditugu gero gure jatexean eskaintzeko.
Hurrengo supermerkatuekin harremanak eukiko doguz: Mercadona, Eroski, Dia, Lidl, Coviran, Carrefour eta El Corte Inglés.
2. Inguruko nekazari eta ekoizle txikiak.
Ekolur erakundeagaz jarriko gara kontaktuan, horrela nekazariei Ekolurren bidez elikagaiak erosiko diegu. Ekolur erakundeak, nekazaritza sustatzen dauan erakunde bat da. Ekolur Bizkaia (Bizkaiko Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekologikoaren Elkarte) irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta laurogeita hamarrekoko hamarkadaren hasieran eratu zen. Ekolur enpresak nekazaritza ekologikoa sustatzeko eta zabaltzeko lan egiten du, Lurreko bizitzaren zikloa mantentzeko, garatzeko eta jarraitzeko prozesu biologikoak eta haien artean sortzen diren elkarreraginak errespetatuz. Ekolurreri elikagai mota desberdinak erosiko dioguz, esate baterako, barazkiak, frutak eta okela.
3. Pertsonen birgizarteratzean lanean diharduten erakundeak.
La Once eta Bizitegia elkartearekin (Gizarte- bazterkeria pairatzen duten pertsonen laguntzen diete jardueren bidez) jarriko gara kontaktuan langileak kontratatuzko.
4. Harreman estua lokalaren jabearekin alokairua ordaintzeko orduan edo ura, argia... arazo bat egonez gero erraztasunez konpondu ahal izateko.
5. Publizitate agentzia batekin harremanak izan behar ditugu komunikazio kanpaina txiki baina koherentea bat eratu dezaten.
6. Banaketa enpresa bat bilatuko genuke langileen jokaera duina sustatzen duena eta era berean zuzentazun batez tratatzen diena.